

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Rosario Arkauz Arkauz  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko urriaren 29an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Mainer Landa Ruiz de Azua andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 29 de octubre de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Mainer Landa Ruiz de Azua

## 1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

Hitza hartu ondoren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleen marrazkiak pleno aretoan jarrita egotearen arrazoiak azaldu ditu Alkateak. Marrazki horiekin beraiei zuzendutako espazio publikoentzako begirunea eskatu gura da.

Berriaz eman da ondorengo erabakiaren berri:

- 1007. Alkate erabakia, Maider Landa Ruiz de Azua zinegotziari eskuordetzeko euskara, gazteria eta hezkuntza zerbitzuen kudeaketa.
- Kredituak aldatzeko 17. eta 18. espedienteak onartzeko erabakiak.

Ondoren transkribatzen da espediente bakoitza osatzen duten DIRU-SARREREN ETA GASTU PARTIDEN KONTZEPTUEN AURREKONTUAREN EGOERA-ORRIA.

## 17. ESPEDIENTEA

### Diru-sarrereren egoera

Kreditu gaikuntza finantzatzen duten diru-sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontuetako kontzeptua	Izena	Hasierako aurreikuspena inicial	Behin betiko aurreikuspena definitiva	Aldea
0201.380.000.00.01	Itxitako aurrekontuetatik itzulitakoak	60,03 €,-	17.849,01€	17.788,98.€
<b>GUZTIRA</b>		60,03 €,-	17.849,01 €	17.788,98.€

### Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek aurrekontuko ondorengo partidetan dute eragina:

Aurrekontuko partida	Izena	Hasierako aurreikuspena inicial	Behin betiko aurreikuspena definitiva	Aldea
0201.421.121.00.01	Mankomunit.: Adm. Orokorra.	44.939,15 €	46.654,49.€	1.715,34.€
0501.227.442.10.13	Mankomunit.: Ingurumena.	327.381,90 €	336.785,43 €	9.403,53 €
0501.721.442.10.01	Mankomunit.: Ingurumena.	16.889,40 €	19.933,52€	3.044,12 €
0503.227.322.00.13	Mankomunit.: Enplegua.	11.436,93 €	12.251,57 €	814,64 €
0502..227.751.00.13	Mankomunit.: Turismoa.	9.445,20 €	9.995,53 €	550,33 €
<b>GUZTIRA</b>		410.092,58.€	425.620,54.€	.15.527,96.€



aurrekonkurtsora jotzea erabaki duela eta, horren aurrean, **Eskoriatzako Udaleko udalbatzak**, 2013ko urriaren 29ko bilkuran, BILDU, EEE – Elizateak, EAJ-PNV, PSE-EE, eta IU-Ezker Anitzako zinegotziak, honako hau adierazten dugu:

1. Gure kezka eta elkertasuna adierazi nahi dugu Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresako langile eta kooperatibistei. Era berean egoera erabaki honen zeharka eragin dien eskoriatzarrei ere.

2. Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresari, ahal bezain laster, etorkizunera begirako erabakiak har ditzala eta hauen inguruko informazio nahikoa eta gardena eman diezaiola langile, bazkide, hornitzaile eta harztekodunei. Hartzen dituen erabakietan, ez ditzala mugimendu kooperatiboaren ezaugarri izan diren balore eta printzipioak ahaztu eta saia dadila, ahal den heinean, enplegua mantentzen, horretarako beharrezko izan daitezkeen bideragarritasun planen bidez.

Udalak, bere eskumenen barruan, egungo egoera hau berbideratzeko ahalegin gehigarriak egingo ditugu, Eskoriatza eta eskoriatzarren hobebeharrez. Eta gainontzeko erakundeekin elkarlanerako prest azaltzen gara pairatzen ditugun eta aurrerantzean ere pairatuko ditugunei ahalik eta modu egokienean aurre egiteko.

Debagoienak momentu gogorak igaro ditu historian zehar eta gizarteak jakin izan du egoera hauei erantzuten. Honetatik ere ez gara sufritu gabe aterako, baina badaude esperantzarako arrazoiak ere, nahiz eta momentuko egoerak agian lausotzan gaituen.

Animo asko lehen pertsonan sufritzen ari zareten guztioi

Alkatearen adierazpenak amaituta, eta **ESKORIATZAKO PRESOEN ALDEKO TALDEAREN** eskariz, gai zerrenda aldatzea erabaki du, eta talde horrek Gorka Azpitarte presoaren egoerari buruz aurkeztutako mozioa aztertzea.

## **2.- ESKORIATZAKO PRESOEN ALDEKO TALDEAK ESKATUTA GORKA AZPITARTE PRESOAREN EGOERARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Hitza eman ondoren, **ESKORIATZAKO PRESOEN ALDEKO TALDEKO** ordezkari batek Udalbatzarrak onar dezan aurkeztutako mozioa irakurri du, ondoren hitzez hitz transkribatzen dena:

acudir al precurso de acreedores, el Pleno del Ayuntamiento de Eskoriatza, en sesión celebrada el 29 de octubre de 2013, y reunidos los concejales de BILDU, EEE-Elizateak, EAJ-PNV, PSE-EE, e Ezker Anitza-IU, manifestamos lo siguiente:

1. Queremos expresar nuestra preocupación y solidaridad a los trabajadores y trabajadoras y cooperativistas de la empresa Fagor Electrodomésticos, así como a los eskoriatzarras que indirectamente se vean afectados por esta situación.

2. Solicitar a la empresa Fagor Electrodomésticos que tome cuanto antes decisiones cara a futuro, y que de información suficiente y transparente sobre ello a los trabajadores y trabajadoras, socios y socias, proveedores y acreedores. Y que en las decisiones que tome no se olvide de los valores y principios que han sido características del movimiento cooperativo, y que intente, en lo posible, mantener el empleo mediante los planes de viabilidad que sean necesarios para ello.

El Ayuntamiento, dentro de sus competencias, por el bien de Eskoriatza y los eskoriatzarras, haremos un esfuerzo añadido para reconducir la situación actual, y nos mostramos dispuestos a colaborar con las demás instituciones para hacer frente de la manera más adecuada a la situación que estamos padeciendo y a las que podamos padecer en el futuro.

Debagoiena ha pasado momentos difíciles a lo largo de la historia, y la sociedad ha sabido responder a dichas situaciones. De esta tampoco saldremos sin sufrimiento, pero también existen razones para la esperanza, aunque la situación actual puede que nos las difumine.

Ánimo a todas las personas que lo estéis sufriendo en primera persona.

**2013ko urrian Eskoriatzako udalean egingo den osoko bilkuran aurkezteko mozioa:**

Gorka Azpitarte euskal preso eskoriatzarra, 2009 urtean atxilotua izan zenetik espetxeratua dagoena, irailaren 2an epaitua izan zen Parisen: 5 urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta estatu frantziarrean sartzeko debekua.

Gorka Azpitarte gaur egun Fleury Merogis-en (frantziar estatua) espetxeratuta dago. Espetxe horretan euskal presoak eskubide urraketak jasaten ari dira bertako zuzendariaren eskutik: DPS (modu berezian seinalatua) moduan ezarrita dauden euskal presoak ziegaz behin eta berriro aldatzera zigortu izan dituzte, esaterako. Presoek beraien eskubideak aldarrikatzeko eskuetan dutena egin ostean urriaren 1etik 11ra gose greba egin behar izan zuten zuzendariak beraien eskubide eskariari erantzun zieziaion. Gogora ekarri behar da gose greba muturreko borroka era dela, gogorra edozein kasutan, are gehiago espetxeak ezartzen duen zigor egoeran.

Azaldutako guzti hau kontuan hartuta udaleko osoko bilkuran hemen agiri diren puntuak onartzeko eskatzen dugu mozio honen bidez.

Eskoriatzako udalbatzak mozio hau onartzen du:

- 1. 2011ko urriaren 17an egin zen Aieteko adierazpenarekin bat egiten dugu bere bost puntuetan, Euskal Herriak bizi duen gatazka egoera konpontzeko bide egokizat hartuz.**
- 2. Frantziako eta Espainiako gobernuei Aieteko adierazpenaren 2. puntua bete, eta Euskal Herrian bizi dugun gatazka konpontzeko pausuak ematen hasteko eskatzen diegu. Ildo horretan, epaiketa honek eta espetxean gertatzen diren eskubide urraketek gatazkaren konponbidera hurreratu beharrean gatazkaren luzapena adierazten duela salatu nahi dugu.**
- 3. Aieteko adierazpenaren 2. puntua betetzeko pausuen artean Gorka Azpitarte, Marixol Iparragirre, Iñaki Lizundia, Mikel Albisu eta gainontzeko euskal presoak Euskal Herriratzeko eskaria egiten dugu, dispertsio politika behingoz amaituz.**
- 4. Gorka Azpitarte herkideari eta bere senideei gure elkartasuna adierazten diegu eta Gorkaren eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzen dugu.**
- 5. Gorka Azpitarteri osoko bilkura honek onartutakoaren berri emango dio udalak eskutitz bidez, baita herritarrei ere dagokion bidea erabiliz.**

Udal taldeetako bozeramaleek ez dute hitza hartu, eta mozioa bozkatu da. Cantero jaunak aurka bozkatuta, Merino jauna, Madinabeitia jauna eta Arkauz andrea abstenituta, eta gainerako sei zinegotziek alde bozkatuta, mozioa onartu da.

**2.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Urrutia jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea berretsi da:

**ESKORIATZAKO ETA LEINTZ GATZAGAKO UDALEN ARTEKO IDAZKARITZA ELKARTEA DESEGITEKO ESKAERA.**

**2013-2015 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bere botoa justifikatzeko Urrutia jaunak esan du behin baino gehiagotan azaldu duen arrazoiarengatik bozkatu duela aurka, gaiak alperra pasata sartzen direla, eta gero batzordeena aurpegiratzen dela.

### **3.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA ALDATZEA.**

Alkateak azaldu du proposatutako aldaketarekin udal etxebizitza tasatuak errentan, erosteko aukerarekin, emateko aukera gehitzen dela; eta jakinarazi du aldaketa hori egitea VISESAk eskatu duela.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean eta espedientean jasotako moduan onartzea Udal etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa.

**Bigarrena.-** Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, ordenantza behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

### **4.- URBANIZAZIO OBRAK EXEKUTATZEKO BERME BEZALA AITZORROTZ S.L.-EK JARRITAKO ABALA KITATZEKO BAIMENA.**

- Eskoriatzako Udalak hirigintza hitzarmena egin zuen, 2002ko maiatzaren 29an, AITZORROTZ SL eta UDALOSTE S.COOP enpresekin Eskoriatzako Hirigune Historikoa birgaitzeko plan bereziko 4. jarduketa unitatea exekutatzeko.
- Urbanizazio obrak etxebizitzak egiteko obrekin batera egin ahal izateko modurik eraginkor eta koordinatuenean, soziedade bakoitzak banketxeko abal bat aurkeztu zuen urbanizazio betebeharrak guztiei erantzun ahal izateko.
- Hori dela-eta, AITZORROTZ S.L.-ek 15.025,30 €-ko banketxeko abala aurkeztu zuen 2002.urtean.
- Emilio Arrizabalaga jaunak, AITZORROTZ S.L.-ren izenean, abala itzultzeko eskatu zuen 2013ko uztailaren 24an.

Kontuan izanik urbanizazio obrak amaituta daudela, Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

- **Lehenengoa.-** Banco Sabadell S.A.k AITZORROTZ SL-ren alde emandako abala kitatzeko baimena ematea. Abal hori 15.025,30 €-koa da, 416282 zenbakia du, eta Eskoriatzako Hirigune Historikoa birgaitzeko plan bereziko 4. jarduketa unitatean AITZORROTZ S.L.k bere gain hartutako urbanizazio betebeharrei erantzuteko bermea zen.
- **Bigarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari abalaren kitapena izapidetu dezan, eta adieraztea, ezin dela abalaren dokumentua bidali kitapena baimentzen duen erabakiarekin batera, galdu egin baita.

## **5.- HAINBAT ERAKUNDE ETA UDAL ORGANOETAN UDAL ORDEZKARI BERRIA IZENDATZEA.**

Itziar Martínez Iregui zinegotziak bere karguari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen 2013ko apirilaren 23an.

Udalbatzarrak uko horren berri jaso zuen 2013ko apirilaren 30ean.

Itziar Martínez Iregui udal ordezkari izendatuta zegoen hainbat erakundetan.

2013ko irailaren 24an, Maider Landa Ruiz de Azua andreak zinegotzi kargua hartu zuen Itziar Martínez Ireguiaren ordez.

Aldaketa hori kontuan izanik, beharrezkoa da udal ordezkari berria izendatzea zenbait erakunde eta elkartetan.

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, horren arabera, eta Urrutia jauna, Merino jauna eta Cantero jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Ordezkarri berriak IZENDATZEA ondorengo erakunde eta elkarteetan:

- ***LUIS EZEIZA HERRI IKASTETXEKO, ALMENEKO ETA HAURRESKOLA KONTSORTZIOKO ESKOLA KONTSEILUAK***

Titularra: Maider Landa Ruiz de Azua  
Ordezkoa: Beñat Herce Leceta

- ***MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ESKOLA KONTSEILUA***

Titularra: Beñat Herce Leceta  
Ordezkoa: Maider Landa Ruiz de Azua

- ***EUSKALTEGI LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA:***

Beinat Herce Leceta  
Iñaki Madinabeitia Elorza eta Maider Landa Ruiz de Azua

- **GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEA**

- Titularra: Maider Landa Ruiz de Azua
- Ordezkoa : Beñat Herce Leceta

- UDAL OGASUNA ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA

Batzordekide berria: Maider Landa Ruiz de Azua

## **6.- ESKORIATZAN KIROL ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA: BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA HASTEA.**

Hitza eman ondoren, Ezpeleta jaunak, kirol arloko zinegotzi arduradunak, labur azaldu du zein den kontratazioaren helburua.

Hitz egiteko txanda irekita, honako hauek hitz egin dute:

Madinabeitia jaunak kontratazioak gutxi gorabehera zer nolako aurrekontua izango duen galdetu du. Idazkariak horren berri eman dio.

Merino jaunak esan du bere ustez Udala diru pila bat gastatzen ari dela beharrezko ez diren gauzetan, ez duela ulertzen zertarako behar den hainbeste langile kiroldegian, eta galdetu du Rosa Lasagabasterrek, kirol teknikariak, ezingo lukeen egin orain kontratatu gura diren funtzioak. Bere iritziz, kiroldegiak neurri handiegia du, eta Udalak kudeatu behar du, ez azpikontrata bidez.

Alkateak erantzun dio kiroldegiak, guztira, 300.000 euroko gastua duela urteko (langileak, hornidurak...), eta gastu hori ez dela berria, antzerakoa izan dela urte askotan.

Ezpeleta jaunak erantzun dio Merino jaunari Rosa Lasagabasterren profila ez dela bakarrik kiroldegiko kirol kudeatzailearena, baizik eta Eskoriatza osoko kirol kudeatzailea dela, kiroldegiko arduraduna izateaz gain, eta hortik kanpo beste funtzio batzuk betetzen dituela; kontratazio honekin kirol jarduerak emateko norbait kontratu gura dela, Rosak ezin duela spinnig ikastaroa eman, sorosle izan eta abar. Jarduerak eskaini gura badira beharrezkoa dela horiek emateko norbait kontratatzea.

Urrutia jaunak esan du funtsean bat datorrela Merino jaunarekin. Zuzendu dio Rosa Lasagabaster ez dela udal teknikaria, udal aholkularia dela, eta bere ustez lotsagarria dela kanpoko aholkulari batek bulegoa izatea udal lanpostu batean. Ondoren, Ezpeleta jaunak esandakoari erantzunez, honako hau esan du: *esan da Rosa Lasagabaster ez dela kiroldegiko kirol aholkularia, herriko kirol aholkularia dela; eta nik galdetzen dut, kiroldegiko kirola baino zenbat gehiago da herriko kirola? Ze behar dago departamentu hori hainbeste kargatzeko? Uste dut departamentu hori eta kulturakoa neurritz kanpokoak direla.* Ondoren, diktamenari eta baldintza agiriri buruzko bere iritzia eman du. Diktamenari buruz esan du orain garbi gelditu zaiola nor den batzorde horretako



idazkaria, eta diktamena irakurrita bakarrik oraintxe bertan asmatuko lukeela, kirol aholkulariaren kontratuarekin asmatu zuen bezala, zein izan behar den esleipenduna. Baldintza agiriari dagokionez, deigarri egin zaizkion baldintzak irakurri ditu eta horiek kritikatzeko dituen arrazoiak aipatu ditu (hizkuntza irizpideei buruzkoa, prezioak berraztertze baldintza, kirol zerbitzuetako arduradunari buruzko aipamena, Udalarekin harremanetarako solaskideari buruzkoa, soroaren betebeharra, azpikontratazioari buruzkoa...). Amaitzeko, esan du baldintza agiriak zalantza besterik ez dituela sortzen, kiroldegiko kudeaketari buruz lehendik daudenaz gain.

Madinabeitia jaunak kiroldegiko zerbitzuaren gastuaren eboluzioa kontrolatzeko eskatu du.

Eztabaida amaituta, Urrutia jaunak eta Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Prozedura irekia deitzea Eskoriatzan kirol zerbitzuak eskaintzeko kontratua esleitzeko, kontratu hori arautu behar duten baldintza administratiboen agiriaren arabera.

**Bigarrena.-** Kontratu honetatik sortutako gastuei aurre egiteko beharrezko kredituak baimentzea indarrean dagoen aurrekontuko 0406.227.452.20.16 partidaren kargura eta datozen urteetan horrek eragina izango duen ekitaldien kargura, indarraldiko lehen urte honetan 162.737,14 € kreditua.

## **7.- ESKORIATZAKO ETA LEINTZ GATZAGAKO UDALEN ARTEKO IDAZKARITZA ELKARTEA DESEGITEKO ESKAERA.**

Eskoriatzako Udaleko Alkateak Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udaletako idazkari lanpostu bakarra elkarrekin izateko elkarte desegiteari buruzko justifikazioko memoria egin du.

Egindako memoriaren arabera, justifikatuta dago elkarte desegiteko beharra, horretarako arrazoia izanik lanpostu horren funtzioak Eskoriatzako Udalean betetzeak duen lan eta zerbitzu bolumena.

Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuko 3. artikuluan ezarritakoa ikusirik, eta aurrez esandakoan oinarrituta, Udalbatzarrak, aho batez eta legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioa eta Justizia Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroekiko Zuzendaritzari Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udaletako idazkari lanpostu bakarra elkarrekin izateko elkarte desegiteko eskatzea.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri ematea Leintz Gatzagako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

## **8.- 2014. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO HASIERAKO ONARPENA.**

2014ko ordenantza fiskalei buruz Ogasun batzordeak egindako proposamenaren laburpena egin du Alkateak.

Bertaratutako guztiek horren berri izanda, ondorengoek hitz egin dute:

Merino jaunak esan du IU-ren iritzia zerga guztiak bere horretan lagatzea zela, gain kostua izan eta hirugarrenen pean daudenak izan ezik, hau da, ura eta zaborrak. Adierazi du zergak bere horretan lagatzeko proposamen hori egin dela ia, ibilgailuen gaineko zerga bere horretan gelditzen delako eta beste batzuei KPIa igotzen zaielako, eta jarduera ekonomikoen gaineko zergan enplegua sortzeagatik hobaria egiteko proposamena ere jasotzen dela. Azkenik, esan du zerga eta tasa guztiak ez direnez bere horretan utzi behar, bera abstenitu egin behar dela.

Urrutia jaunak, Alkateari zuzenduz, gogorarazi dio iaz, eta baita aurreko urteetan ere, zerbitzu guztien azterketa ekonomikoa egitea eskatu zuela, eta Alkateak hori egiteko konpromisoa hartu zuela. Uste du irizpidea ez dela KPIa izan behar, eta ordenantza kontuetan populismo puntu hori alde batera utzi beharko litzatekeela eta zerbitzu guztien azterketa ekonomikoa egin horien gastua nola gutxitu daitekeen ikusteko, hori egiterik ahal izanez gero. Esan du hasieratik goazela gaizki, errazkeriaz jokatzeko, 0,7 igo eta...; uste du ordua dela ordenantzak onartzerakoan zenbait zerbitzuren gastuen azterketa izateko eta horretan oinarrituz erabakiak hartzea. Amaitzeko, esan du proposamenaren aurka bozkatu behar duela.

Alkate jaunak erantzun dio ezer esan aurretik informatzeko, azterketa ekonomikoko horiek eginda daudela, eta guztion esku daudela Q karpetan; eta azterketa horren arabera, kiroldegia kenduta, gainerako zerbitzuetan nahiko handia dela finantziarioa, eta KPIaren irizpidea bat datorrela Udalak esleitutako zerbitzuetarako finkatutako prezio berrikusketarekin, hau da, zerbitzu horren kostuak datorren urtean Udalarentzako izan behar duen igoerarekin.

Cantero jauna: gu abstenitu egin ginen azkeneko Ogasun batzordean, uste dugulako iaz ez bezala, zergak nabarmen igo zirenean, aurten nolabaiteko ahalegina egin dela eta tasa eta zerga gehienak bere horretan utzi direla. Horregatik, uste dugu ordenantza hauek positiboak izan daitezkeela, nahiz eta zenbait igoera izan, adibidez, hiri hondakin solidoak jasotzeagatik tasan edo ibilgailuen gaineko zergan. Kontuan izan behar da ere, Ogasun batzordetik osoko bilkura honetara arteko denboran idazkariaren irizpenaren pean gelditu zela eta enplegua sortzeagatik hobari bat sartu dela, eta hori da gure taldearen eztabaidagai nagusia; eta hori ere oso positiboa da. Horregatik guztiagatik, abstenitu egingo gara.

Urrutia jaunak, Alkateak esandakoari erantzunez, adierazi du ez zaiola logikoa iruditzen azterketa ekonomikoa egin ondoren tributu gehienak % 0,7an igotzea, normalena litzatekeela igoera azterketa horren arabera izatea, eta desberdina tributu bakoitzeko.

Alkateak erantzun dio argituko diola; dirudienez, ez delako konturatu. Esan du tributu gehienak bere horretan gelditzen direla, oso gutxi dutela % 0,7ko igoera hori. Eta horren arrazoa dela, azterketa ekonomikoko horren arabera, datorren urtean zerbitzu horien kostuari aurre egin ahal izango zaiola.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Urrutia jaunak aurka bozkatuta, Cantero jauna eta Merino jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek (7) alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2014ko ordenantzei buruz Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (I eranskin gisa doa).

**Bigarrena:** Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

## **8.- 2014. URTERAKO TELESKO UDAL TELEBISTAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako guztiek ezagutzen dute Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena.

Urrutia jaunak eta Merino jaunak aurka bozkatuta, Cantero jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek (7) alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Telesko Udal Telebistaren 2014rako ordenantzari buruz Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (I eranskin gisa doa).

**Bigarrena.-** Hartutako erabakiak jendurrean jartzea 30 lanegunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

## **9.- GIZARTE GARAPEN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA BIDEZ ESKORIATZAKO UDALAK TOKI GARAPENA SUSTATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Onartzeko proposatzen diren oinarrietan aurreikusitako laguntzekin lortu gura diren helburuak azaldu ditu labor Alkateak. Helburu horiek arrazoen azalpenean jasota daude. Era berean, adierazi du oinarrietan, eta berritasun bezala, laguntza ordaintzeko modua jasotzen dela, izan ere, ez baita dirutan izango, baizik eta "axtroki" izeneko herri monetan.

Azalpena amaitu ondoren, besteek hitz egiteko txanda ireki du:

Madinabeitia jauna: Horrelako izen ponpoxoaren atzean ez dakit nolako ekintzak egongo diren. Ni, behintzat, ez nago ados horietako batekin. Ez da kontuan hartzen bi elizateen errealitatea, eta bi elizate horien kokapenagatik bertako auzotarrentzat zaila izan daiteke hobari horiek jasotzea. Horregatik, auzotar horientzako salbuespena egitea eskatu nuen. Baina, ikusirik guztiei tratu bera ematen zaiela nahiz eta datu objektibo bat egon errealitatea desberdina dela erakusten duena, ez dut uste zuzen ezta egoki ere jokatzeko ari denik.

Alkate jauna: batzorde baten esan nuen ez natorrela bat iritzi horrekin, ulertu dezaket, baina, ez nator bat. Nik ulertzen dut orain arte etorri baldin badira hobariak eskatzeko, datorren urtean ere etorri ahal izango direla laguntzak eskatzera, eta gainera, kontuan izan behar da Mendiola eta Gellao Eskoriatza direla. Horrez gain, esan behar da deialdi bat baino gehiago egongo direla eta denbora egongo dela sistemak nola funtzionatzen duen ikusteko.

Merino jauna: nik ikusten dut hobariak kendu direla tasa eta zerga batzuetan eta herri monetan ordainduko diren diru laguntzengatik aldatu direla, eta diru hori bakarrik herriko dendetan erabili ahal dela. Zuk hobaria jasotzen duen multzo hori derrigortzen duzu beharbada beraiek gastatu nahi ez duten leku batean gastatzera, gainera, gertatzen da besteak baino egoera okerreagoan egon daitezkeen pertsonen zuzenduta dagoela (langabetuak, jubilatuak...); ogia 1,20 €-tan erostera derrigortzen dituzu zuk, eta beharbada, merkeago erosi nahi dute Aretxabaletan; eta herri honetan ase ezin dituzten beharrak izan ditzakete. Nik ulertzen dut zer nahi duzun, baina, modua ez dut ikusten. Ekonomikoki sentiberagoa den talde batekiko bereizkeria dagoela ikusten dut.

Alkate jauna: uste dut herriko merkataritza sustatu behar dugula, eta uste dugu neurriak hartu behar direla Eskoriatzan merkataritzari eusteko, eta hau izan daiteke horietako neurri bat. Derrigortzeaz ari zara, nik ikusten dudana berrinbertsioa da, zirkuitu bat sortzea Eskoriatzatik datorren dirua Eskoriatzan inbertitzeko.

Merino jaunak berriz esan du berarentzat inposizioa dela dirua gastatzea norberak nahi ez duen lekuan, nahiz eta bera herriko merkataritza bultzatzearen alde egon.

Urrutia jauna: nik alde bozkatuko dut kontsekuentea izan nahi dudalako. Uste dut behin baino gehiagotan esan dudala neurriak hartu behar direla gai honetan eta zerbait egin beharra zegoela. Ez nago oso ziur horrela egin behar zenik, axtrokiekin... Uste dut antzerki izaera puntu bat duela, baina, nik konfiantza boto bat eman nahi diot. Juan Luisek esan duenari dagokionez, uste dut ogia erostera Aretxabaletara joan nahi duenak horrela egiten jarraitu ahal izango duela. Iñakik esandakoari dagokionez, eta bere ikuspuntua ulertuta eta Mendiolako eta Gellaoko errealitatearen jakitun, uste dut auzo horietako bizilagunek aukera izan behar dutela herri osorako araudi batean parte hartzeko. Eta, gainera, elizateetako errealitatea kontuan hartzen duten gauzak bakarrik bozkatu behar baldin badituzue, ez dakit nola bozkatzeko duzuen kiroldegikoa edo ordenantza fiskalak. Aurkezpenak grazia handirik ez badit egiten ere, konfiantzazko boto bat eman behar dut, batez ere, zerbait egitea planteatzen delako.

Cantero jauna: proposamen honen alde egingo dugu, gure ustez herriko merkataritza sustatzeko modu bat delako. Uste dugu logikoa dela Udalak herriarentzako ekintza positiboetan bihurtzea hobariak.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da. Aurkako hiru botorekin (Madinabeitia jauna, Arkarazo andrea eta Merino jauna), eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gizarte garapen eta garapen jasangarrirako diru laguntza programa bidez Eskoriatzako Udalak toki garapena sustatzeko emango dituen diru laguntzak arautuko dituzten oinarriak hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritzi gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren eta aurrekontu kontsignazioa izanda, bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **10.- 2013-2015 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Urrutia jauna, Merino jauna eta Cantero jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2013-2015 diru laguntzen plan estrategikoa.

**Bigarrenena.-** Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrenena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

## **11.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2014. URTERAKO.**

AGITAX elkarteak 2013rako % 2,3ko igoerarekin tarifak berrikustea proposatzen du. Aurkeztutako proposamena tarifa taula honetan ikus daiteke:

	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko
EGUNEZ, LANEGUNETAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUETAN/JAI EGUNETAN**	3, 5130 €	1'7553 €	33,0393€

\* 1. Tarifa, egunez lanegunetan: Lanegunak 7:00etatik 20:00etara.

\*\* 2. tarifa, egunero 22:00etatik 7:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia eta herri araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, eta baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo automobiler garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3.3 eta 17.6 artikuluen arabera, herri barruko tarifen erregimena erabakitzea Udalari dagokio, nahiz eta, behin erabakia hartuta, espedientea Merkataritza Lurralde Ordezkaritzara bidali behar, ordezkaritza horrek Euskadiko Prezio Batzordera bidaltzeko batzordeak tarifak aztertu, eta hala badagokio, baimendu ditzan.

2005eko irailaren 22an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2005eko abuztuaren 23an Lur eta Garraioetako diputatuak Taxi zerbitzua emateko Debagoieneko Babes Bereziko Zonaren eraketa onartzeko emandako Foru Agindua. Eta bertan ezarritako baldintzen artean dago, besteak beste, tarifak bateratzearena. Eremua osatzen duten udalerriz guztietan tarifa bera ezarriko da zerbitzuaren arabera.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, eta Ogasun Batzorde Informatzaileak proposatutakoarekin bat etorriz, aho batez ERABAKI DA:

**Lehenengoa:** AGITAX elkarteak Eskoriatzako herri barruan auto-taxientzako 2014an ezarri beharreko tarifentzako egindako proposamena onartzea ondoren adierazten den bezala :

	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko
EGUNEZ, LANEGUNETAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €

GAUETAN/JAI EGUNETAN**	3, 5130 €	1'7553 €	33,0393€
------------------------	-----------	----------	----------

\* 1. Tarifa, egunez lanegunetan: Lanegunak 7:00-22:00

\*\* 2. tarifa, egunero 22:00etatik 7:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia eta herri araudietan ezarritako jaiegunetan 06:00etatik 22:00etara, eta baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

**Bigarrena:** Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuna Sailera –Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzara- bidaltzea tarifak berraztertzeo hasitako espedientea, azterketa ekonomikoarena barne, eta erabaki honi buruzko ziurtagiria, azterketa honetako tarifa berrazterketa espedientea tramitatu ahal izateko.

## **12.- ESKORIATZA ETA BARRUNDIA UDALEN ARTEKO MUGAK: MUGARRITZE AKTA JASOTZEKO UDAL BATZORDEA IZENDATZEA.**

*Eskoriatzako eta Barrundia udalerrietako mugaketa egin eta mugarririk jartzeko espedientea izapidetu eta erabaki ondoren, beharrezkoa da mugarriztatze akta egitea. Hori horrela, 1690/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduko 17. artikulua arabera, batzorde bat sortu behar da.*

*Aurrez esandakoa kontuan hartuta, Ogasun Batzorde Informatzaileak egindako proposamena ikusita, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:*

Lehenengoa.- *Eskoriatza eta Barrundia udalerrietako mugarriztatze akta egiteko batzorde bat osatzea. Batzordea honako hauek osatuko dute:*

- *Alkatea: Beinat Herce Leceta jauna*
- *Zinegotziak:*
  1. *Aitor Urrutia Oyanguren jauna*
  2. *Jose Luis Cantero Morcillo jauna*
  3. *Arantza Iregui Villar*

*Ordezkoa:*

1. *Jose María Herce Isasmendi.*

- *Peritua: Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako teknikaria.*
- *Idazkaria: Edurne Iturbe Lascurain andrea.*

## **13.- UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA OSPITALETAN MODU ANBULATORIOAN EMATEN DIREN BOTIKEN KOORDAINKETA BERRIA GAITZESTEKO.**

Hitza eman ondoren, Cantero jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

### **JUSTIFICACION**

Desde la puesta en marcha, en el año 2012, del Real Decreto-ley 16/2012, de 20 de abril, de medidas urgentes para garantizar la sostenibilidad del Sistema Nacional de Salud y mejorar la calidad y seguridad de sus prestaciones, muchos han sido los pasos dados por la Administración en contra de los derechos de los pacientes, algunos singularmente graves.

En este mismo sentido de recortes de derechos, recientemente se publicaba en el Boletín Oficial del Estado, el pasado 19 de Septiembre, la Resolución de 10 de septiembre de 2013, de la Dirección General de Cartera Básica de Servicios del Sistema Nacional de Salud y Farmacia, por la que se procede a modificar las condiciones de financiación de medicamentos incluidos en la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud mediante la asignación de aportación del usuario, en desarrollo del Real Decreto-ley 28/2012, de 30 de noviembre, de medidas de consolidación y garantía del sistema de la Seguridad Social. Con esta publicación, sin notificación o información previa del Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad, el Gobierno evitaba su publicidad tratando de soslayar la reacción adversa de los profesionales de la sanidad, de los pacientes afectados y sus familias, presentándolo así como un hecho consumado.

Sin embargo, la injusticia y crueldad con que se toman estas medidas se agrava como consecuencia de ser pacientes crónicos quienes han de pagar este tipo de medicación, lo que sin duda, se une a la ya difícil situación personal derivada de su dolencia crónica o grave, cáncer, hepatitis...

Ante esta circunstancia, muchas han sido las asociaciones y colectivos de pacientes, profesionales sanitarios y consumidores los que han elevado su protesta a la Administración. De igual manera lo han hecho algunas Comunidades Autónomas, como Castilla y León, Andalucía, Asturias o País Vasco, que han mostrado su incompreensión ante una medida tan ineficaz como injusta.

El Parlamento Vasco ya se ha pronunciado en ocasiones precedentes, en contra de la aplicación de medidas de repagos por la prestación de servicios sanitarios. Así mismo, en la pasada legislatura el Gobierno del Lehendakari Patxi López puso en marcha todos los mecanismos a su alcance para impedir la aplicación de los recortes impuesto por el Gobierno de Rajoy.

Por todo lo expuesto, el GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA formula la siguiente Moción para su debate en Pleno:

- 1. El Ayuntamiento-Pleno de Eskoriatza rechaza todas las medidas de recortes sanitarios y repagos realizadas en fechas precedentes y rechaza el nuevo copago para fármacos que se dispensan en los hospitales de manera ambulatoria e insta al Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad a derogar de forma inmediata la Resolución de 10 de septiembre de 2013, de la Dirección General de Cartera Básica de Servicios del Sistema Nacional de Salud y Farmacia, por la que se procede a modificar las condiciones de financiación de medicamentos incluidos en la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud mediante la asignación de aportación del usuario.***
- 2. Y consecuentemente con lo anterior este Ayuntamiento creyendo hacerse eco del sentir de la inmensa mayoría de sus ciudadanos rechaza, en cualquier caso, la aplicación de la citada Resolución en el territorio de nuestra Comunidad Autónoma, e insta al Gobierno Vasco a realizar las gestiones oportunas para que los ciudadanos afectados no tengan que realizar ningún tipo de pago por el suministro de fármacos en los hospitales de la Comunidad Autónoma.***
- 3. Este acuerdo será trasladado a la Presidencia del Gobierno de España, al Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad, a las Cortes Generales así como al Gobierno Vasco, a las Juntas Generales de Gipuzkoa y a EUDEL.***

***Eskoriatza, 10 de Octubre de 2013.***

Hitz egiteko txanda irekita, honako hauek hartu dute parte:

Merino jaunak esan du alde bozkatu behar dutela, baina, talde sozialistari gogoratu behar zaiola lehenengo puntuan jartzen duela **osasun murrizketa neurri guztien aurka dagoela**, eta Patxi Lopezen gobernuak 8.100 lanpostu murriztu zituela, gehienbat, hezkuntza eta osasunean. Eta, gaineratu du, autokritika pixka bat ere egin behar dela.

Iregui andreak esan du beraiek alde bozkatuko dutela murrizketa horien aurka daudelako.

Cantero jauna: Ezker Anitzako ordezkariak esaten duenari dagokionez, hau proposamen zehatz bat eta mozio zehatz bat da. Hitz egin daiteke gertatu denari eta gertatu ez denari buruz, eta eguzkiari topa egin, hori izan baita Ezker Batuaren etxeko marka bizi guztian.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea abstenituta, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

#### **14.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO MOZIOA.**

Iregui andreak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

#### **MOZIOA: AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroaren 25ean ospatzen den **“Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna”** dela-eta, sexu-erasoetan jarri nahi dugu arreta, batez ere, neska gazteek jasaten dituztenetan.

Azken urteotan, aldaketa nabarmenak izan dira emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanetan. Hala ere, eta aurrerapenak gorabehera, askotan ikus dezakegu harreman hauek gure gizartean sustraiturik dagoen desberdintasunean oinarrituta eraikitzen direla oraindik ere, eta, ondorioz, eguneroko jarreretan agertzen dela, desberdintasun hori ugarituz eta betikotuz.

Hain zuzen ere, desberdintasun-testuinguru horretan sartu behar ditugu erasoak, izan ere, eraso horietako asko hain daude normalizatuta eta hain dira egunerokoak, neska gazteek nekez antzeman ditzakete.

Zenbait **faktorek** neska gazteek sufritzen dituzten hamaika mikro eraso sexista erakusten dizkigute, baina, leunak direnez, normalizat hartzen ditugu; faktore horietako batzuk honakoak dira: nesken sexualizazio etengabea; emakumearen gorputza desira-objektu gisa ikustea; kontrola ezinezko sexualitatea duen gizonaren estereotipoa, bere ekintzen erantzukizun orotik salbuesten duena; edota jazarpenaren naturalizazioa, hurbilketa sexualeko estrategia gisa.



Emakumeenganako indarkeria errotik desagerrarazteko **lanak**, lehenik eta behin, agerian utzi behar ditu indarkeria mota horiek, desberdintasuna eta sexu-indarkeria sustatzen dituzten mezu sexistak antzemanaz.

Era berean, beharrezkoa da, erasoak prebenitzeko erabiltzen diren **estrategietan**, beldurraren bitartez euren segurtasunaren erantzule izatea saihesten duten mezuak helaraztea neska gazteei. Halaber, mezu horiek nesken jabetasuna sustatu beharko lukete eta sexualitate aktiboa izateko eskubidea aintzatetsi, betiere, neskak estigmatizatu gabe edo jarrera arriskutsuen erantzule egin gabe.

Funtsezkoa da **hezkuntza afektibo-sexuala** izatea, gazteek errespetuan eta berdintasunean oinarritutako sexualitatea gara dezaten. Beharrezkoa da eurekin berriaz hitz egitea, eraso mota oro prebenitzeko izan behar duten papera azpimarratuz, eta adieraztea euren jarrera sexisten eta euren testuinguruaren gaineko erantzukizuna izan behar dutela.

Hori guztiori dela-eta, Eskoriatzako Udal honek:

**KONPROMISOA HARTZEN DU**, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, **berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso, parte-hartzaile eta koordinatua** garatzeko, arreta berezia jarritz neska gazteek eta nerabeek jasaten duten indarkerian.

Horretarako, **ekimenak abiaraziko ditu**, emakumeak, batez ere emakume gazteak, zaurgarritasunari aurre egiteko eta jabetasuna sustatzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko. Aldi berean, jarrera sexistak prebenitzeko eta eguneroko mikro eraso sexisten kontrako jarrera aktiboa eta irmoa hartzeko lan egingo du.

Era berean, **GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki herriko neska-mutil gazteei**, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta azaroan zehar egingo diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Mozioa irakurri ondoren, jakinarazi du azaroan zehar hainbat ekintza egongo direla et bertaratuei ekintza horietan parte hartzeko gonbita egin die.

Ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Merino jauna: jakina, erabat ados gaude. Nik beste mozio bat aurkeztu behar dut azaroan. Bilduk aurrea hartu digu. Deigarria egiten zait 25erako kontzentrazio bat egiteko eskatzea, prestakuntza, ekimenak... herri honetan iaz emakumeen aurkako bi eraso marxista egon zirenean, eta hemen, plazan kontzentrazio bat egitea eta eraso horiek gaitzes- teko erakunde adierazpen bat egitea eskatu, eta ezer egin ez zenean. Eta, orain, grazia

egiten dit, azaroaren 25a iristen denean denok oso onak gara eta horrelako ekimenak babesten ditugu, komunikatu bat irakurri eta hor gelditzen da dena; horrelakoak, horrelako erasoak gertatzen diren momentuan egin behar direnean. Eta ez dakit beldurragatik edo koldarkeriagatik izan zen. Herrian horrelako egoeraren bat gertatzen den bakoitzean, lehena naiz esaten plazara atera behar dela, ez bada ikusten, arazoa izkutatu egiten delako.

